

I Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal Estrategia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Euskal Unibertsitate Sistemaren rola, Euskadin agente dinamizatzailea eta eraberritzailea den aldetik, ezagutu, azpimarratu eta sustatzen du estrategia honek; lidergoa ere hartzen du espezializazio adimentsu eta humanoko lurralde batean egin beharreko eraldatzean; palanka gisa erabiltzen ditu euskal talentu, ikerketa eta berrikuntzaren garapena eta nazioarteko bihurtzearen aldeko jarrera. Euskal unibertsitate-sistema indartzeko Eusko Jaurlaritzak egindako apustuaren ardatzetako bat da eta unibertsitateen bikaintasun zientifikoa eta gure enpresen oraingo eta etorkizuneko premiak hartzen ditu kontuan. Ezagutza sortu eta transferitzea eta lankidetzagiro batean giza kapitala eratzea ditu helburu nagusiak. Azken helburua Euskadiren garapen sozial eta ekonomikorako, testuinguru europar eta nazioarteko batean, palanka bat sortzea da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 6a





Edukia

Sarrera	5
Estrategia testuinguru batean sartzea	6
Euskal unibertsitate-sistema Europako goi hezkuntza-sistemen erronken aurrean.	8
Estrategiaren helburuak.....	9
Estrategiaren jarduerak.....	10
Gobernamendurako eta estrategia gauatzeko egitura.	13





Sarrera

Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal Estrategia abiapuntu bat da, euskal unibertsitate-sistemak euskal gizartearen eragile dinamizatzaile eta eraberritzaile gisa duen rola ezagutu, azpimarratu eta sustatzeko. Gainera, ematen dio sistemari, goi hezkuntza-sistema europar gisa, dituen erronketako askori aurre egiteko aukera eta lidergoa hartzen du espezializazio adimentsu eta humano bateko espazio batean lurraldea eraldatzeko prozesuan. Estrategia honek, gainera, palanka gisa erabiltzen ditu euskal talentu, ikerketa eta berrikuntzaren garapena eta nazioarteko bihurtzearen aldeko jarrera.

Horretarako, unibertsitate eta enpresek dagoeneko egindako lanaren ezagutza du abiapuntua eta, ondoren, helburu eta jarduera-ildoak ezartzen ditu etorkizunari begira; programa, proiektu eta tresnak proposatzen ditu eta goi hezkuntzaren aldeko politikak enpleguaren aldekoekin eta politika ekonomiko eta industrialekin lerrokatzen ditu, prestakuntzaren eta ezagutza zientifiko eta teknologikoa transferitzearen bidez.

Gainera, euskal unibertsitate-sistema indartzearen aldeko Eusko Jaurlaritzaren apustuaren ardatzetako bat da. Ildo horretan, unibertsitateen bikaintasun zientifikoak eta gure enpresa eta instituzioen oraingo eta geroagoko premiak hartzen ditu kontuan. Horiek horrela, estrategia hori ez dela euskal unibertsitate-sistema etorkizunean garatzeko ardatz bakarra azpimarratu behar dugu; izan ere, unibertsitate-sistema horrek estrategia osagarriak behar ditu, ikerketa eta irakaskuntza bezalako funtsezko helburuei arreta eman ahal izateko eta gizarte guztiarengana iritsiko den eta, haren erronkei ez ezik, gizarteak planteatzen dizkionei ere erantzuna emango dien goi hezkuntza moderno eta kalitateko bat Euskadin lortzeko urratsak emate aldera. Bestalde, estrategia hau dokumentu ireki bat da eta unibertsitate eta enpresaren arteko estrategia ororen funtsezko gai batzuk, bizitzan zehar egin beharreko prestakuntza esate baterako, planeko gobernu-organoen bidez egingo den ikuspegi baten zain geratzen dira.

Estrategiaren denbora-ikuspegia 2017-2022ko aldia da. Horiek horrela, unibertsitateen plan estrategikoen eta 2015-2018ko unibertsitate-planaren bidez



martxan dauden jarduerak era naturalean jarraituko dute 2019-2022ko aldian eta elkarren osagarri izango dira unibertsitateek, beren autonomiari begira, aurre egiten dieten jarduerak eta 2019-2022ko Unibertsitate Planean planifikatzen direnak; izan ere, estrategia hau, besteak beste, erreferentziatzat hartuko da 2019-2022ko Planean planifikatzen diren jarduera horiek definitzeko orduan.

Bi helburu nagusi planteatu dira: bikaintasun zientifikoari eta bikaintasun hori enpresaren eremuan aplikatzeari lotutako ezagutza sortu eta transferitzea, bata eta gaitasun handietako giza kapitala, enpresa-eremuaren premiei aplikatu eta egokitutako osagai batekin, prestatzea bestea. Horretarako, gure unibertsitateen eta euskal enpresen eta instituzioen artean lankidetzan aritzeko marko bat behar dugu, ikuspegi europar batetik nazioarte bihurtzeko prozesurako lagungarri ere izango dena. Horiek horrela, gure unibertsitate-sistema modernizatzeko eta hobetzearen aldeko jarrerari ematen zaio laguntza eta gure gizartearen aurrerapen eta modernizatzeari ematen zaie bultzada.

Hots, Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal Estrategiaren azken helburua Euskadiren garapen sozial eta ekonomikorako palanka bat eratzea da, euskal gizarte moderno, zuzen eta iraunkorragoa eraikitzeko lagungarri izango den testuinguru europar eta nazioarteko batean.

Estrategia testuinguru batean sartzea

Unibertsitate eta enpresaren arteko lankidetzak sustatzea premiazko erronka bat da eta, sozialki konprometituta egongo diren gaitasun handietako pertsonak prestatze aldera, gero eta handiagoa den gizartearen eskaerarekin bat dator. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, XI. legegaldirako hartutako konpromisoen artean, liderra izango den ekimenetako bat da.

Europako Batzordearen eta Eusko Jaurlaritzaren artean, 2016ko ekainean Helsinkin egin zen Unibertsitate eta Enpresaren arteko harremanei buruzko Foru Europarrean, hasitako lankidetzak, Donostian 2016ko urrian batera antolatutako Forumaren hurrengo edizioan izan zuen lankidetzak horrek jarraipena, funtsezko elementu bat izan da, estrategia honen definizioan eta azken erredakzioan aurrera egiteko orduan.



Lankidetza horri esker sartu ahal izan dira unibertsitate eta enpresaren arteko loturaren eremuarekin zerikusia duten eta Europako Batzordeak markatu dituen lehentasunak, ¹Goi Hezkuntzarako Europar Batasunaren Agenda Berritu bati buruz 2017ko maiatzaren 30ean aurkeztutako jakinarazpenean.

Hau adierazi behar dugu: Europako Batzordeak kontrastatu, ekarpenak egin eta balidatu ditu estrategia honetan proposatutako helburu eta jarduerak. Horregatik, erreferentziako agiri bat da hau eta beronen edukia duela gutxi egin diren hezkuntzari eta garapen europarrari buruzko politikekin ere lerrokatuta dago, ondorengo alderdiei besteak beste: enprekin, beste instituzio batzuekin eta euskal lanbide heziketarekin lankidetzan aritzeko testuinguru zabal batean oinarritutako unibertsitate-prestakuntza eta ezagutza zientifiko eta teknologikoa sortu eta transferitzearekin zerikusia duten alderdiak.

Gainera, Euskadiko unibertsitatearen eta enpresen arteko harremanen gaurko errealitatea eta inplikaturako eragile nagusien puntu indartsuak kontuan hartuta egin da, 2017-2012ko aldian lankidetza handiagoa bilatze aldera. Bestalde, lau helizean oinarritutako ikuspegi bat egin da, unibertsitate eta enpresek, arduradun publikoak, euskal unibertsitate-sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako ordezkariak, enpresak eta Confebask Enpresarioen Euskal Konfederazioa integratu dituzten foro desberdinen bidez, egin dituzten ekarpenak kontuan hartuta.

Gehigarri gisa, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren helburuetako bati ematen dio estrategia honek erantzuna; izan ere, Kontseilu horrek, 2017ko apirilaren 26ko bileran, Confebask Elkarteak berorren bileretan parte hartzea onartu zuen, Kontseiluko gainontzeko kideekin batera euskal unibertsitate-sistemaren eta Euskadiko enpresen arteko lankidetza sustatzeko asmoz.

Azkenik, hau azpimarratu behar dugu: sustatze hori era eraginkor eta koordinatuago batean lortzeko, estrategia honen helburuak, RIS3-Euskadi espezializazio adimentsuko euskal strategiaren helburuak eta Eusko Jaurlaritzak euskal instituzio

¹Europako Parlamentuko Batzordeak Kontseiluari, Batzorde Ekonomiko eta Sozial Europarrari eta Eskualdeen Batzordeari egindako jakinarazpena, goi hezkuntzarako EBren agenda berri bati buruzkoa. COM (2017) 247 azkena. Brusela, 2017ko maiatzaren 30a. <http://eur.ex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:42017DC047&from=EN>.



eta eragileekin, ondorengoekin besteak beste, lankidetzan sustatutako beste plan batzuk lerrokatu dira:

- Euskadiko Ekintzailetzarako Instituzioen Arteko Plana.
- Enplegurako Euskal Plana.
- Euskal Unibertsitate Sistemarako Unibertsitate Plana.
- Industrializazio Plana .
- Ikerbasqueren Plan Estrategikoa.

Euskal unibertsitate-sistema Europako goi hezkuntza-sistemen erronken aurrean.

Europako Batzordeak ohartarazten duenez, Europako goi hezkuntza-sistemek hainbat eta hainbat erronkari egin behar diete aurre etorkizunari begira garatzeko orduan eta, erronka horiei behar bezalako erantzuna emateko, neurri osagarriak definitzeko eskaera egiten die, espresuki, administrazio publikoei. Erronka horiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, saihestezinak dira edozein goi hezkuntza-sistemarako, baita, ondorioz, goi hezkuntzako euskal sistemarako ere. Horregatik, erronka horiei behar bezalako erantzuna emateko jarduerak eramango ditu Hezkuntza Sailak aurrera, administrazioa, unibertsitateak, eragileak eta, oro har, euskal gizartea lankidetzan aritzeko eta, beraz, partekatzen diren helburuen testuinguru batean.

Europako goi hezkuntza-sistemarako ondorengo erronkak adierazten ditu, besteak beste, Europako Batzordeak:

- Gaitasun handia eskatzen duten lanbide batzuetan dagoen eskulanaren eskasia eta oinarrizko eta zeharkako konpetentzia batzuetan dagoen gaitasun falta hobetzeko jarduerak laguntzea.
- Pertsonal akademikoa eta titulatuak gizartetik at dauden pertsonatzat jotzeko askotan dagoen ikuspegia gainditzeko lan egitea.
- Ekonomian, oro har, eta eskualdeetan, bereziki, berriztapenean egin beharreko ekarpena areagotzea sustatuko duten jarduerak aurrera eramatea.



- Hezkuntza-sistemen osagai desberdinen artean beti gertatzen ez den lan-harremanari guztien artean eta arin aurre egitea; besteak beste, gainontzeko hezkuntza-mailekin, Lanbide Heziketarekin esate baterako, dagoen interakzio falta aipatzen da.

Estrategiaren helburuak

Europako Batzordeak planteatutako erronkei kasu eginez, bi helburu nagusi planteatu dira:

Helburua	Deskripzioa
1.helburua	Bikaintasun zientifikoari eta enpresaren eremuan aplikatzeari lotutako ezagutza sortu eta transferitzea;
2.helburua	Enpresa-eremuaren premiei aplikatu eta egokitutako osagai bat duen gaitasun handietako giza kapitala prestatzea.

Helburu horiek ondorengo gai nagusiei ematen diete erantzuna:

1.helburua: bikaintasun zientifikoari eta enpresaren eremuan aplikatzeari lotutako ezagutza sortu eta transferitzea.

- Eskualde eta euroeskualde mailako ikerketa eta berriztapenaren arloko bikaintasuna sustatzea;
- RIS3 espezializazio adimentsuko strategiaren iraunkortasunaren aldeko jarrera izatea;
- Ikerketaren eragin soziala laguntzea eta gizartean ikusgarri bihurtzea;
- Bikaintasuneko ikerketari lotutako ekintzailtza-jarduerak laguntzea;



- Enpresak, unibertsitateekin lankidetzan, espezializatzeko eta nazioarteko bihurtzeko prozesua laguntzea;
- Gure euskal unibertsitate-sisteman eta BERC Bikaintasuneko Zentroen Sarean sortutako ezagutzaren transferitzea sustatzea.

2.helburua: enpresa-eremuaren premiei aplikatu eta egokitutako osagai bat duen gaitasun handietako giza kapitala prestatzea.

- . Izan beharreko perfil eta gaitasunak dituzten pertsonak prestatzea;
- Eragile akademiko, enpresa eremuko eta sozialen arteko harremanak sustatu eta egituratzea;
- Nazioarte mailan lehiakorra izateko, eskualde eta euroeskualde mailan prestakuntza ematea;
- Espezializazio adimentsua gaitasun handietako giza kapitala prestatzeko ardatz gisa sartzea;
- Ekintzaitzaren eremuari lotutako eragileen arteko lankidetzaren sustatzearen bidez graduatuen enplegarritasuna hobetzea;
- Egresatuen ibilbide profesionalaren gaineko ezagutzan sakontzea;

Estrategiaren jarduerak

Estrategiaren bi helburuei arreta emateko, unibertsitateen plan estrategikoen eta 2015-2018ko unibertsitate-planaren bidez dagoeneko aurrera eramaten ari diren jarduerak ez ezik, ondorengoak ere eramango dira aurrera:

1.jarduera: unibertsitate eta enpresaren arteko 2022ko estrategia gauzatzea.



Unibertsitate eta enpresaren eremuari buruzko Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren lan-taldea eratzeko, estrategia sustatzeko;

2.jarduera: RIS3-Euskadiren helburuei arreta emateko, euskal unibertsitate-sistemako fakultate eta eskolak klusterizatzea.

- Ingeniaritzetan, Zientzietan eta Teknologian prestatzeko Euskadiko Klusterraren helburuak definitzea eta martxan jartzea;
- RIS3ri arreta emateko beste kluster batzuk identifikatu eta martxan jartzea;

3.jarduera: unibertsitate eta enpresen aipua definitzea, gradurako, gradu-ondokorako eta doktoretzarako.

- Gradu eta gradu-ondoko aipu duala;
- Gradu eta gradu-ondoko aipu i-duala;
- Industria-doktoretzako programaren aipua;

4.jarduera: prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratua unibertsitate-prestakuntza dualaren eremura egokitzeko akordioak sustatzea.

5.jarduera: Unibertsitatea eta LH unibertsitate-graduetan lankidetzan aritzeko euskal markoaren definizioa.

6.jarduera: aipua dituzten titulazioak euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetan ezagutu eta martxan jartzea.

- Euskal unibertsitate-sisteman unibertsitate eta enpresaren titulazioen mapa egitea;
- Unibertsitate eta enpresaren aipua duten titulazio berriak euskal unibertsitate-sisteman martxan jartzea;



1.irudia. unibertsitate eta enpresaren aipua duten titulazio berrien 2020ra arteko bilakaera.

7.jarduera: ikasleak euroeskualdean eta Europa mailan prestatzeko harremanak sustatzea.

- Ikasleak enpresetara mugitzeko programa espezifiko bat, unibertsitate eta enpresaren aipua duten titulazioei lotuta, martxan jartzea.

8.jarduera: unibertsitate eta enpresen arteko lankidetza sustatzea, ikasleen jarraipena, haien unibertsitate-prestakuntza bukatu ondoren, egiteko;

- Enplegarritasunari buruzko inkestak egitea;
- ALUMNI programak sustatzea.

9.jarduera: RIS3-Euskadi estrategiarekin lerrokatuta dauden enpresa eta unibertsitatearen arteko gelak martxan jartzea, unibertsitate eta enpresen arteko lankidetza enpresa-testuinguru batean sustatzeko.

- 4.0 Industriari buruzko enpresa eta unibertsitatearen arteko gela martxan jartzea, AIC Automotive Intelligent Centrekin lankidetzan;
- RIS3-Euskadirekin lerrokatuta dauden enpresa eta unibertsitatearen arteko beste gela batzuk identifikatu eta martxan jartzea;



10.jarduera: euskal unibertsitate-sistemako Zientzia, Teknologia eta Berriztapenaren arloko eragileen eta enpresen arteko lankidetzak-hitzarmenak.

- Perfil profesionalak identifikatzea eta prestakuntza-jarduerak planteatzea;
- Ezagutza akademikoa duten enpresetan kooperazio-programak antolatzea;
- Erronkak eta ezagutza unibertsitate eta enpresaren artean transferitzeko proiektuak definitzea;
- Transferentzia sortzea eta ezagutza hedatzea;

11.jarduera: Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzaren programa eta deialdiak Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal Estrategiaren helburuetara egokitzea.

12.jarduera: unibertsitate eta enpresaren eremuari dagokionez, 2019-2022ko Unibertsitate Plana egin eta aurrera eramatea.

13.jarduera: unibertsitate eta enpresaren arteko harremanak hedatzeko prozesua sustatzea.

14.jarduera: Ekimen ekintzaile berriak sortzea sustatzeko programa bat definitzea, euskal unibertsitate-sisteman eta BERC zentroetan eskura dauden ezagutza eta teknologia baloratzetik eta transferitzetik abiatuta.

15.jarduera: Gazteen Enplegu Planari lotutako laguntzen programa martxan jartzea:

- Gazte egregatuak lan-merkatura sartzeko laguntzak;
- Euskal unibertsitate-sisteman ekintzailtzarako laguntzak;

Gobernamendurako eta estrategia gauzatzeko egitura.

Haien jarraipena egingo dela eta aurrera eramango dela bermatzeko gobernu-organo batzuk ditu estrategia honek. Hiru maila antolatu dira: strategiaren maila markoa; maila estrategikoa eta gauzatze-maila.



	Maila markoa	Maila estrategikoa	Gauzatze maila
	Euskadiko Unibertsitate Kontseilua (CVU)	Unibertsitate eta enpresaren 2022rako euskal estrategiako Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko lan-talde iraunkorra.	² Ingeniaritzan, Zientzian eta Teknologiaren eremuko prestakuntzarako Euskadiko klusterra.
Helburuak	Unibertsitate eta enpresaren 2022rako euskal estrategiaren lidergoa.	Unibertsitate eta enpresaren 2022rako euskal estrategiaren jarraipena egitea eta helburu berriak definitzea.	Estrategiaren jarduerak gauzatzea.
Kideak	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kideak. Confebask 	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea. Confebask Euskal unibertsitate-sistemako errektoretza-taldeetako ordezkariak. 	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria. Confebask Industry 4.0 pilotatze-taldea. Dekanoak eta zuzendariak. Euskampus
Jarduerak	2019-2022ko Unibertsitate Planean unibertsitate eta enpresari lotutako jarduerari buruzko txostena.	Estrategien monitorizatzea eta jarraipena egitea eta beste helburu eta jarduerari batzuk Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari proposatzea.	Jarduerari berriak martxan jartzea eta beste jarduerari batzuk egiteko proposamena Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari egitea.

² Euskal Estrategiaren gauzatze-prozesuan kontuan hartuko dira prestakuntzarako kluster berriak.